

15 eta 29 urte bitarteko gazteen bisita medikoen gutxi gora-behera erdiak medikuntza orokorrari dagozkio


Hamar kontsulta medikotatik bat 15 eta 29 urte bitarteko gazteena da; horietatik erdia baino gehiago, izan ere, neskena da. Espezialitate medikorik bisitatuena medikuntza orokorra da eta, bigarrenik, baina portzentaje nabarmen apalagoarekin, dentistarena.

Gazteen Euskal Behatokiak prestaturiko *Gazteak 1* txostenean Euskadiko gazteek osasunari buruz dituzten ikusmoldeak aztertzen dira. Txosten horren emaitzen artean gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzioa dago: gazteen % 69,1ek uste dute beren osasuna ona dela eta %17,8k, bikaina dela. Horenbestez, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 85ek beren osasunari buruz duten pertzepzioa positiboa da.

Kontsulta medikoak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Inkestan kontsulta medikoei buruzko informazioa biltzen da. 2007ko inkestaren emaitzek aditzera ematen dutenez, urteko kontsulta medikoen % 10,6 15 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie.


Aurreko aldietako datuekin alderatuta, 15 eta 29 urte bitartekoen kontsulta medikoen proportzioak behera egin du.



Iturria: EAEIOI. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta bertan egina.

Generoaren araberako azterketak ezagutzera ematen du nesken kontsulta medikoak ugariagoak direla mutilenak baino (% 52,0 eta % 48,0, hurrenez hurren). Egoera hau Osasun Inkestaren datuak bildu diren urte guztietan (1992an, 1997an, 2002an eta 2007an) errepikatu da.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen urteko kontsulta medikoak, sexuaren arabera (%). EAE. 1992-2007




Iturria: EAEOI. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta bertan egina.

15etik 29 urtera bitarteko gazteek 2007an gehien bisitatu dituzten espezialitateei dagokienez, azpimarratzekoak dira medikuntza orokorra (% 48,4) eta, hein txikiagoan, baina bisita kopuruari dagokionez garrantzi handiarekin, dentistaren kontsulta (% 21,2). Bi espezialitate mediko hauek 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsulten % 69,6 dira.

2007ko inkestaren eta 1992koaren arteko konparaketari esker zera jakin dezakegu: alde batetik, 1992an bezala, 2007an ere kontsulta medikorik bisitatuena medikuntza orokorra eta dentista dira. Haatik, bi espezialitate hauek aurkako joera izan dute: dentistaren kontsultek behera egin dute 1992tik hona eta medikuntza orokorrekoek gora.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen urteko kontsulta medikoak, espezialitatearen arabera (%) EAE. 1992 eta 2007



Iturria: EAEOI. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta bertan egina.

Erlazionatutako datuen kontsulta:

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsulta medikoei buruzko adierazle estatistikoak.
Gazteak 1. Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz.

Erlazionatutako estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema
 Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak